

HERRIZAINGO SAILA**541**

AGINDUA, 2008ko urtarrilaren 7koa, Herrizaingo sailburuarena, Ertzaintzako lanpostuak merezimendu lehiaketa bidez hornitzerakoan aplikagarria izango den merezimendu orokorren baremoa onartzen duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehiaketa da hornikuntzarako ohiko sistema eta bertan kasuan kasuko deialdian ezarritako merezimenduak baloratuko dira, besteak beste: antzinatasuna, gradu pertsonal jakin bat izatea, egindako lanaren balorazioa, prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, titulu eta gradu akademikoak, eta baita hornitu beharreko postuak berezko dituen ezaugarrien arabera egoki izan daitezkeen beste batzuk ere.

Abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak onetsitako Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiak, berriz, honakoa xedatzen du legezko aurreikuspenak garatzerakoan: lehiaketetan, kasuan kasuko deialdietan zehazten den moduan, eskainitako postuen ezaugarriei egokitutako merezimenduak baloratu beharko dira, bereziki, antzinatasuna, gradu pertsonal jakin bat izatea, egindako lana, gainditutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, titulu eta gradu akademikoak, eta hala dagokionean, baita euskarazko jakite-maila eta zorion-hitz zein esker on profesionalak ere, hori guztia zehaztasunez ezarritako irizpideen eta ehunekoen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko 1998ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 21/1997 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren bitartez Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 74. artikulua aldatu zen. Aldaketa horrek aipatutako artikuluen hasierako idazketari eta lanpostu-osagarriaren izaerari soilik eragiten dien arren, zalantzarik gabe, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen aurreikuspenak zuzenean ezartzea eskatzen zuten Legearen beraren bestelako aginduetan ere ondorioak ditu. Horrela, adibidez, eta arreta Ertzaintzarengan jarrita, gradu pertsonalari dagokion 43. artikulua- ren edukia nahitaez ulertu behar da norainoko eta ondorio mugatuekin, izan ere, «gradu pertsonala», aldaketa horren ondorioz, «kategoriaren» berdina da. Aipatutako Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiak ere aldaketa horien berri ematen du, izan ere, 9.1.b) artikuluan finkatutako maila pertsonala kasuak kasuko kategoriari lotuta baloratu behar dela xedatzen du. Hala ere, egindako lana baloratzeko arau honek funtzionarioaren kategoria dagoeneko kontuan hartzen duenez, ez du

DEPARTAMENTO DE INTERIOR**541**

ORDEN de 7 de enero de 2008, del Consejero de Interior, por la que se aprueba el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos.

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, dispone en su artículo 65 que el concurso constituye el sistema normal de provisión y que en él se valorarán los méritos establecidos en la correspondiente convocatoria entre los que habrán de figurar, además de la antigüedad, la posesión de un determinado grado personal, la valoración del trabajo desarrollado, los cursos de formación y perfeccionamiento, y las titulaciones y grados académicos, sin perjuicio de aquellos otros que puedan resultar adecuados en función de las características propias del puesto a proveer.

Por su parte, el reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, desarrolla la provisión legal determinando que en los concursos deberán valorarse los méritos adecuados a las características de los puestos ofrecidos, en la forma que se determine en las respectivas convocatorias, y, en particular, la antigüedad, la posesión de un determinado grado personal, el trabajo desarrollado, los cursos de formación y perfeccionamiento superados, las titulaciones y grados académicos, así como en su caso, el nivel de conocimiento del euskera y las felicitaciones y reconocimientos profesionales, todo ello de acuerdo a criterios y conforme a porcentajes que se establecen de forma detallada.

Mediante disposición adicional duodécima de la Ley 21/1997, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales para la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1998, se modificó el artículo 74 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco. Aunque dicha modificación formalmente sólo opera sobre la redacción inicial del citado artículo y la naturaleza del complemento de destino, incide sin duda alguna sobre otros preceptos de la propia Ley que presuponían una aplicación directa de las previsiones de la Ley de Función Pública Vasca. Así, por ejemplo, y centrándonos en el Cuerpo de la Ertzaintza, el contenido del artículo 43, referido al grado personal forzosamente ha de entenderse limitado en su alcance y efectos, pues «grado personal» es, como consecuencia de la citada modificación, igual a «categoría». El mencionado reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco se hace eco de tal modificación al disponer en su artículo 9.1.b) que el grado personal consolidado se ha de valorar en relación con la categoría correspondiente. Dado, sin embargo, que en la presente norma la categoría

kontzeptu horregatik inongo balorazio osagarririk barne hartu.

Horrenbestez, Ertzaintzari soilik aplikatzeko xedapena denez gero, Euskal Herriko Poliziari buruzko 2006ko abenduaren 14ko Legearen 103.2 artikulua aitpatzen duen mahaiaren bileran derrigorrezko azterketa eta negoziazioa gauzatu ondoren (jarraipena 2006ko abenduaren 27ko bileran), Ertzaintzako Kontseilua entzun ondoren, abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak onartzen duen Euskal Herriko Polizi Kidegoetako Funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren lehenengo xedapen gehigarriak eman didan gaikuntza erabilita, eta Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuak eman dizkidan eskudantziak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Merezimendu-baremoaren onespena.

Agindu honen eranskinean dagoen eta merezimendu-lehiaketa bidezko Ertzaintzako lanpostu-horniduran aplikagarria izango den merezimendu orokorren baremoa onetsi egingo da abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuak onetsi zuen Euskal Herriko Polizi Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudian ezarritako baldintzetan.

2. artikulua.— Baremoko kontzeptu ezberdinen balio osoa.

100 puntuk osatuko dute merezimedu-baremoko kontzeptu ezberdinen balio osoa; honako proportzioaren arabera eta adierazitako gehieneko puntuazioarekin banatuko dira:

- a) Antzinatasuna: 40 puntu.
- b) Egindako lana: 40 puntu.
- c) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak: 6 puntu.
- d) Titulu eta gradu akademikoak: 4 puntu.
- e) Zorion-hitz eta esker on profesionalak: 10 puntu.

3. artikulua.— Baremoko kontzeptu bakoitzaren puntuazioa.

1.— Hautagaiak Ertzaintzan duen antzinatasuna eranskineko 1. atalean adierazitako baremo partzialaren arabera balioetsiko da. Familiartekoak zaintzeko lan-utzialdiko, ordezkaritza-organo publikoetarako hauteskundetan hautagai aurkezteko norbere borondatezko lan-utzialdiko, genero-indarkeria dela-eta hartutako lan-utzialdiko, derrigorrezko lan-utzialdiko eta zerbitzu bereziko administrazio-egoerak osorik zenbatuko dira. Lizentziek eta baimenek, jarduneko zerbitzuko edo bigarren jarduerako egoera aldatzen ez dutenez, ez dute antzinatasun-neurketa eteten.

del funcionario/a ya es tomada en cuenta al valorar el trabajo desarrollado, no se incluye ninguna previsión de valoración adicional por dicho concepto.

En consecuencia, tratándose de una disposición de exclusiva aplicación a la Ertzaintza, tras el preceptivo análisis y negociación en sesión de la mesa a la que se refiere el citado artículo 103.2 de la Ley de Policía del País Vasco de fecha 14 de diciembre de 2006 (continuación en sesión de 27 de diciembre de 2006), oído el Consejo de la Ertzaintza, haciendo uso de la habilitación concedida por la disposición adicional primera del reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, y en uso de las atribuciones que me confiere el Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior,

DISPONGO:

Artículo 1.— Aprobación del baremo de méritos.

Se aprueba el baremo de méritos generales que figura en anexo a la presente Orden y que será aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos, en los términos previstos en el reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre.

Artículo 2.— Valor global de los distintos conceptos del baremo.

El valor global de los distintos conceptos del baremo de méritos estará constituido por 100 puntos, los cuales se distribuirán en la siguiente proporción, con la puntuación máxima que se indica:

- a) Antigüedad: 40 puntos.
- b) Trabajo desarrollado: 40 puntos.
- c) Cursos de formación y perfeccionamiento: 6 puntos.
- d) Titulaciones y grados académicos: 4 puntos.
- e) Felicitaciones y reconocimientos profesionales: 10 puntos.

Artículo 3.— Puntuación de cada uno de los conceptos del baremo.

1.— El concepto antigüedad en la Ertzaintza se valorará conforme al baremo parcial que se señala en el apartado 1 del anexo. Los períodos en situación administrativa de excedencia por cuidado de familiares, de excedencia voluntaria por participar como candidatos a elecciones para órganos representativos públicos, de excedencia por razón de violencia de género, de excedencia forzosa y de servicios especiales se computan en su integridad. Las licencias y permisos, que no alteran la situación de servicio activo o segunda actividad, tampoco interrumpen el cómputo de antigüedad.

Hutsegite arinengatik ezarritako zeregin-gabetzeak ere ez du antzinasunaren galerarik eragingo.

2.— Egindako lana hautagaia kasuan kasuko kategorian izendatu zen eguna erreferentziatzat hartuta balioetsiko da, eranskineko 2. atalean xedatutakoaren arabera. Jarduneko zerbitzuan edo bigarren jardueran benetan egindako lana balioetsiko da, beraz, zenbaketatik at geratuko dira adierazitakoak ez bezalako administrazio-egoeretan emandako aldiak eta, aurreko lanpostuak betetzeko prozesu orokorra ebatzi zenetik, batetik norbere arazoengatik eskatutako baimenei dagozkien aldiak, eta bestetik, ohiko gaixotasunek edo lanekoak ez diren istripuek eragindako aldi baterako ezintasunak, beti ere, urte natural bakoitzean 20 eguneko gutxienekoa gainditzen badute.

3.— Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroen idazpuruan Herrizaingo Sailak programatutako espezializazio ikastaroak baino ez dira balioetsiko, eranskineko 3. atalean xedatutakoaren arabera; ikastaro bakoitzari emandako puntuazioa metatu egin daiteke ezarritako gehiengora heldu arte, eta inolaz ere ezingo dira baloratu deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintza moduan eskatzen diren ikastaroak.

4.— Titulu akademiko ofizialak eranskineko 4. atalean xedatutakoaren arabera puntuatuko dira, eta inolaz ere ezingo dira baloratu deialdian parte hartzen den kategoriara sartzeko nahitaezko baldintza moduan eskatzen direnak. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Erdi Mailako Unibertsitate-Tituluaren baliokidetzat hartuko da lizenziaturako hiru ikasturte osorik gainditu izana.

5.— Ertzaintzako langileei aplikatu dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzko apirilaren 27ko 71/2004 Dekretuak aipatzen dituen zorion-hitz eta esker on profesionalak eranskineko 5. atalean ezarritakoaren arabera balioetsiko dira.

4. artikulua.— Euskarazko jakintzaren balioespena.

Euskaraz jakitea merezimendu gisa balioetsiko da lanpostuaren baldintza moduan eskatzen ez denean, eta balioespen horren ehunekoa ezingo da prozesuan lor daitekeen gehienezko puntuazioaren ehuneko hogeit baino handiagoa izan; hona hemen zehatz-mehatz:

a) 1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako, 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero: 10 puntu.

b) 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako,

- 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero: 20 puntu.

- 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero: 10 puntu.

Tampoco supondrá pérdida de antigüedad la suspensión de funciones por falta leve.

2.— El trabajo desarrollado será valorado tomando como referencia la fecha de nombramiento en la correspondiente categoría, conforme a lo determinado en el apartado 2 del anexo. Se valorará el trabajo efectivamente desarrollado en situación de servicio activo o segunda actividad, por lo que se excluirán del cómputo los períodos en situaciones administrativas distintas a las señaladas, así como los períodos desde la resolución del anterior proceso general de provisión de puestos de trabajo que correspondan a permisos por asuntos propios, en todo caso, y a incapacidades temporales derivadas de enfermedad común o accidente no laboral, siempre que superen un mínimo de 20 días en cada año natural.

3.— En el epígrafe de cursos de formación y perfeccionamiento únicamente se valorarán los cursos de especialización programados por el Departamento de Interior, conforme a lo establecido en el apartado 3 del anexo, pudiendo acumularse la puntuación otorgada a cada curso, hasta el máximo establecido y sin que en ningún caso puedan ser valorados los cursos que se exijan como requisito indispensable para participar en la convocatoria.

4.— Las titulaciones académicas oficiales se puntuarán conforme a lo determinado en el apartado 4 del anexo, sin que en ningún caso puedan ser valoradas las que se exijan como requisito indispensable para el acceso a la categoría con la que se participa en la convocatoria. De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se considerará equivalente a Titulación Universitaria Media el haber superado tres cursos completos de licenciatura.

5.— Las felicitaciones y reconocimientos profesionales a los que se refiere el Decreto 71/2004, de 27 de abril, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable al personal de la Ertzaintza, se valorarán conforme a lo señalado en el apartado 5 del anexo.

Artículo 4.— Valoración del conocimiento del euskera.

El conocimiento del euskera se valorará como mérito cuando no sea exigido como requisito del puesto de trabajo, representando dicha valoración un porcentaje no superior al veinte por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el proceso, conforme al siguiente detalle:

a) Para plazas con perfil lingüístico 1, por la acreditación del perfil lingüístico 1 o 2: 10 puntos.

b) Para plazas con perfil lingüístico 2,

- por la acreditación del perfil lingüístico 2: 20 puntos.

- por la acreditación del perfil lingüístico 1: 10 puntos.

5. artikulua.— Berdinketa hausteko irizpideak.

Egon litezkeen berdinketak adierazitako merezimenduetan, aditzera eman diren hurrenkeran, lortutako puntuazioaren arabera desegingo dira. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, hautagaiak lehiaketara aurkezteko darabilten kategoriara karrerako funtzionario gisa noiz sartu ziren eta, halere berdinketak jarraituz gero, kategoria horretara sartzeko aukeratze-prozesuan lortutako lehentasun-ordena hartuko da kontuan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 7a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

ERANSKINA

Ertzaintzako lanpostuak merezimendu lehiaketa bidez hornitzerakoan aplikagarria izango den merezimendu orokorren baremoa

I.— Antzinasuna.

Ertzaintzan emandako zerbitzua hilabete bakoitzeko 0,15 punturekin baloratuko da gehienez 40 puntu lortu arte.

II.— Egindako lana.

1.— Hornikuntza prozesuaren deialdiaren aurreko 15 urteetan Ertzaintzan egindako lana balioetsiko da, gehienez 40 puntu lortu arte, honako baremo partzialaren arabera:

1.1.— Lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategoriarekin egindako lana: 0,20 puntu hilabete osoko.

1.2.— Lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategoriatik beherako kategoriarekin egindako lana: 0,10 puntu hilabete osoko.

1.3.— Eskalara gordetako lanpostuak eskatzen direnean, Eskala horretako edozein kategoriarekin egindako lana 0,20 punturekin balioetsiko da hilabete osoko.

2.— Aurreko atalean esleitutako puntuez gain, eta adierazitako guztizko gehiengora heldu arte, lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategoriatik gorako kategorietarako gordetako lanpostuak eskudun organoak behar bezala emandako zerbitzu-eginkizun bidez bete izana balioetsiko da: hautagaiak 0,075 puntu jasoko ditu lanpostuak betetzeko azkeneko prozesu orokorra ebatzi zen egunetik egindako hilabete oso bakoitzeko.

Puntuazio berarekin, gehigarritasun berarekin eta denbora-tarte berean, lehiakideak egun daukan eta lanpostuak betetzeko prozedurara aurkezteko erabiltzen duen kategoriarako gordetako lanpostuak eskudun or-

Artículo 5.— Criterios de desempate.

Los posibles empates se dirimirán según la puntuación obtenida en los méritos enunciados, por el orden en que aparecen expresados. De persistir el empate, se acudirá a la fecha de ingreso como funcionario/a de carrera en la categoría desde la que concursa y, en su defecto, al orden de prelación obtenido en el proceso selectivo de acceso a la misma.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de enero de 2008.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

ANEXO

Baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos

I.— Antigüedad.

Los servicios prestados en la Ertzaintza se valorarán a razón de 0,15 puntos por mes de servicio hasta un máximo de 40 puntos.

II.— Trabajo desarrollado.

1.— Se valorará el trabajo desarrollado en la Ertzaintza en los 15 años inmediatamente anteriores a la convocatoria del proceso de provisión, hasta un máximo de 40 puntos, de acuerdo con el siguiente baremo parcial:

1.1.— Trabajo desarrollado con la categoría actualmente ostentada por el/la concursante y con la cual concurre al procedimiento de provisión: 0,20 puntos por cada mes completo.

1.2.— Trabajo desarrollado con categorías inferiores a la actualmente ostentada por el/la concursante y con la cual concurre al procedimiento de provisión: 0,10 puntos por cada mes completo.

1.3.— Cuando se soliciten puestos de trabajo reservados a Escala se valorará con 0,20 puntos por cada mes completo el trabajo desarrollado con cualquiera de las categorías comprendidas en la citada Escala.

2.— En adición a la puntuación consignada en el apartado precedente y hasta el máximo global señalado, se valorará el desempeño mediante comisión de servicios debidamente conferida por el órgano competente, de puestos de trabajo reservados a categorías superiores a la actualmente ostentada por el/la concursante y con la cual concurre al procedimiento de provisión, a razón de 0,075 puntos por cada mes completo desde la fecha de la resolución del último proceso general de provisión de puestos de trabajo.

Con la misma puntuación, el mismo carácter de adicional y en el mismo lapso temporal, se valorará el desempeño con categorías inferiores a la actualmente ostentada, mediante comisión de servicios debidamente

ganoak behar bezala emandako zerbitzu-eginkizun bidez egun daukanetik beherako kategoriekin bete izana balioetsiko da.

Eskala jakin bati gordetako lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzeak puntuazio gehigarri bera sortuko du, denbora-tarte berean, Eskala hori lehiakidearen berezko kategoriaren goragokoa denean.

3.- Halaber, egindako lana balioetsi ahal izango da, deitutako lanpostuaren arlo bereko lanpostuetan eskuraturako esperientzia eta hautagaiek betetzen dituzten lanpostuen eta deialdian eskaintzen den lanpostuaren eduki teknikoaren eta espezializazioaren arteko antzekotasuna kontuan hartuz. Baremo partzialak kasuan kasuko deialdietan onetsiko dira.

III.- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

Herrizaingo Sailak programaturiko espezializazio-ikastaro hauek balioetsiko dira, gehienez ere 6 puntu lortu arte, ondoko baremoa kontuan hartuta:

- Esku-hartze ikastaroa: puntu 1.
- Brigada Mugikor ikastaroa: puntu 1.
- Eskolta ikastaroa: puntu 1.
- Indargabetze ikastaroa: puntu 1.
- Txakur-gidari ikastaroa: puntu 1.
- OIKI I edo OIKI II ikastaroa: puntu 1.
- Bide Segurtasunari buruzko ikastaroa: puntu 1.

IV.- Titulu eta gradu akademikoak.

Titulu akademiko ofizialek gehienez 4 puntuko balioespina izango dute, honako baremo partzialaren arabera:

- Goi Mailako Unibertsitate-Titulua: 2 puntu.
- Erdi Mailako Unibertsitate-Titulua: 1,20 puntu.
- Batxiler-titulua, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea: 0,40 puntu.

V.- Zorion-hitz eta esker on profesionalak.

Ertzaintzako langileei aplika dakiekeen kondekrazio- eta sari-erregimenari buruzko apirilaren 27ko 71/2004 Dekretuak aipatzen dituen zorion-hitz eta esker on profesionalak gehienez 10 punturekin balioetsiko dira jarraian adierazitako banaketaren arabera:

- Polizia lanaren esker onagatik domina: 5 puntu.
- Polizia Zerbitzuengatik ezaugarri gorridun diploma: 4 puntu.
- Polizia Zerbitzuengatik ezaugarri zuridun diploma: 2 puntu.
- Zorion-hitzak: 2 puntu.

conferida por el órgano competente, de puestos de trabajo reservados a la categoría actualmente ostentada por el/la concursante y con la cual concurre al procedimiento de provisión.

Idéntica puntuación adicional generará, en el mismo lapso temporal, la comisión de servicios conferida para el desempeño de puestos reservados a Escala, cuando se trate de Escala superior a la correspondiente a la categoría del/la concursante.

3.- Asimismo se podrá valorar el trabajo desarrollado en atención a la experiencia en el desempeño de puestos de trabajo pertenecientes al área funcional a la que correspondan los convocados, así como en atención a la similitud entre el contenido técnico y especialización de los puestos ocupados por los/las candidatos/as con los que se convoquen. Los baremos parciales se aprobarán en las correspondientes convocatorias.

III.- Cursos de formación y perfeccionamiento.

Se valorarán, hasta un máximo de 6 puntos, exclusivamente los siguientes cursos de especialización programados por el Departamento de Interior, con arreglo al siguiente baremo:

- Curso de Intervención: 1 punto.
- Curso de Brigada Móvil: 1 punto.
- Curso de Escoltas: 1 punto.
- Curso de Desactivación: 1 punto.
- Curso de Guía Canino: 1 punto.
- Curso de CICG I o CICG II: 1 punto.
- Curso de Seguridad Vial: 1 punto.

IV.- Titulaciones y grados académicos.

Las titulaciones académicas oficiales se valorarán hasta un máximo de 4 puntos, conforme al siguiente baremo parcial:

- Titulación Universitaria Superior: 2 puntos.
- Titulación Universitaria Media: 1,20 puntos.
- Título de Bachiller, Formación Profesional de 2.º grado o equivalente: 0,40 puntos.

V.- Felicitaciones y reconocimientos profesionales.

Las condecoraciones y distinciones a las que se refiere el Decreto 71/2004, de 27 de abril, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable al personal de la Ertzaintza, se valorarán, hasta un máximo de 10 puntos, del modo que sigue:

- Medalla al reconocimiento de la labor policial: 5 puntos.
- Diploma al Servicio Policial con distintivo rojo: 4 puntos.
- Diploma al Servicio Policial con distintivo blanco: 2 puntos.
- Felicitación: 2 puntos.